

ISSN: 2530-6561
2021eko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak

Eduardo Bidaurrezaga Aurre
Elena Martinez Tola

Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak

Eduardo Bidaurrezaga Aurre
Elena Martinez Tola
Hegoa-UPV/EHU

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Merkataritzaren inguruko teoriak eta eztabaidak	5
2. Nazioarteko merkataritzaren egungo ezaugarriak	7
2.1. Banaketa geografikoa	8
2.2. Banaketa sektoriala	9
2.3. Balio-kate globalak	11
3. Esparru instituzionala	13
3.1. Aurrekariak: GATT eta bere printzipioak	13
3.2. Munduko Merkataritza Erakundea (MME)	15
3.3. Nazioarteko merkataritzaren benetako erregulazioa: liberalizazio asimetrikoa eta jabetza intelektualaren babesa	16
4. Ondorioak	18
Kapitulua egiteko erabilitako bibliografia	19

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak

Egileak: Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Elena Martinez Tola

hegoak zabalduz - 24. zk. 2021eko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Lan honek nazioarteko merkataritza-harremanak aztertzen ditu, bai ikuspegi teorikotik zein instituzionaletik, eta baita denboran zehar hainbat iturri estatistikok emandako datuen analisiaren bidez ere. Horrela, kapitulu hau hiru ataletan egituratzen da. Lehenik eta behin, nazioarteko merkataritzaren eremuko teoria eta eztabaida desberdinen errepaso historiko labur bat egiten da, eta horri buruzko jarrera desberdinak azaltzen dira. Jarraian, nazioarteko merkataritza-harremanen ezaugarri nagusiak eta horien banaketa geografikoaren joera nagusiak erakusten dira. Halaber, balio-kate globalek azken hamarkadetan hartu duten protagonismoa azpimarratzen da. Azkenik, nazioarteko merkataritzaren esparru instituzionalaren aurrekariak azaltzen dira, bai eta haren egungo konfigurazioa ere, 1995. urteaz geroztik Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) sorrerak markatutakoa; eta, aldi berean, nazioarteko merkataritzaren agenda aldeaniztunari lotutako gai eztabaidagarrienak nabarmentzen dira, bai eta agenda horretan dauden inkoherentziak eta asimetriak ere.

Hitz gakoak: Merkataritza-politikak, nazioarteko merkataritzaren banaketa, balio-kateak, nazioarteko erakundeak eta akordioak

Abstract: This paper analyzes international trade relations both from a theoretical and institutional point of view, as well as through the analysis of data provided by various statistical sources over time. Thus, this chapter is structured in three sections. First, a brief historical review is made of the different theories and debates in the field of international trade, explaining the different positions in this respect. It also highlights the importance that global value chains have acquired in recent decades. Finally, the background to the institutional framework of international trade and its current configuration, marked since 1995 by the creation of the World Trade Organization (WTO), are presented; at the same time, the most controversial discussions associated with the multilateral agenda of international trade are highlighted, as well as the inconsistencies and asymmetries present in this agenda.

Keywords: Trade policies, distribution of international trade, value chains, international institutions and agreements.

Sarrera

Gaur egun nazioarteko merkataritza deitzen dugun horrek historia luzea du. Lehen zibilizazioetan, ekoizpen-moduetan eta batzuen eta besteen artean produktuak elkartrukatzeko sistemetan oinarritzen zen, soberakinak kudeatzeko eta toki bakoitzean urriak ziren edo existitzen ez ziren produktuak erosteko. Kolonizazio-prozesuek eta XV. mendetik aurrera kontinentez gaindiko inperio handien eraketek areagotu egin zituzten elkartruke horiek, eta are gehiago hedatu ziren industria-iraultzen, garraiobideen arloko aurrerapen desberdinen eta XIX. mendearen amaierako inperialismoaren ondorioz. Hala ere, XX. mendearen erdialdetik aurrera, eta bereziki mende amaieratik aurrera, nazioarteko merkataritzak hedapen handia izan zuen, globalizazioaren aroari, merkataritza liberalizatzeko prozesuei eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko aurrerapenei lotuta.

Era berean, historian zehar, ekoizpenaren espezializazioarako eta/edo industrializazioarako hainbat prozesu gertatu dira munduko eskualde askotan, nazioarteko merkataritzaren arloko planteamendu teoriko eta politiko batzuen edo besteen aplikazioari zuzenean lotuta. Horrek guztiak agerian utzi du historikoki egon den eztabaida bizia, alde batetik, merkataritza askearen, eta, bestetik, esku-hartze publikoaren eta protekzionismoaren modu desberdinak defendatu dituztenen artean.

Testu honek, lehenik eta behin, teoria eta eztabaida ezberdinen errebaso historikoa egin nahi du, baita denboran zehar izan duten bilakaerarena ere. Jarraian, nazioarteko merkataritzaren ezaugarri nagusiak eta denboran zehar izan dituen joerarik esanguratsuenak azalduko dira, banaketa geografikoari eta sektorialari dagokienez. Horren ostean, balio-kate globalek nazioarteko merkataritzaren konfigurazioan gaur egun duten garrantzia nabarmenduko da. Eta azkenik, nazioarteko merkataritzaren gaur egungo esparru instituzionala aztertuko da, bai eta haren aurrekari nagusiak ere. Horrela, Aduana Tarifei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorren (GATT, ingelesezko siglen arabera) sorrera eta bilakaera jorratuko dira, XX. mendearen amaieran Munduko Merkataritza Erakundea (MME) eratu zen arte. Horri dagokionez, esparru instituzional horrek hainbat alorretan egindako aurrerapenak nabarmenduko dira: merkataritzaren liberalizazioan, agendan sartutako gai eztabaidagarrietan, eta nazioarteko merkataritzaren agenda aldeaniztunean dauden inkoherentzien eta asimetrien esparruan.

1. Merkataritzaren inguruko teoriak eta eztabaidak

Ekonomiaren munduan, "merkatua versus esku-hartze publikoaren" inguruko eztabaida etengabea izan da ezaugarri nagusienetako bat historikoki. Testuinguru horretan, nazioarteko merkataritzaren esparru zehatzean, konfrontazio teoriko berezia izan da nazioartean truke-askatasunaren alde egin dutenen eta merkataritza askearen ondorioz mesfidati eta kanpoko lehiaren aurrean babesteko hainbat neurriren alde egin dutenen artean, bi mutur horien arteko aukera desberdinak egonik ere.

Oro har, teoria ekonomikoaren kasuan bezala, nazioarteko merkataritzaren teorien kasu partikularrean ere, merkantilistek XVI., XVII. eta XVIII. mendearen lehen erdian Europan izan zituzten planteamendu eta jardunbideez haratago, lehen aurrekariak Adam Smith eskoziarraren (1723-1790) lanetan kokatzen dira. Smithek nazioarteko merkataritzaren teoria abantaila absolututik abiatuta azaldu zuen. Horren arabera, Smithek uste zuen herrialde bakoitza espezializatu egin beharko litzatekeela erabateko abantaila handiagoa duten ondasunen ekoizpenean eta esportazioan, hau da, kostuei dagokienez eraginkorrenak direnetan, eta kontrako egoeran daudenak inportatu beharko litzatekeela. Horren ondorioz, Smithek zera ulertzen zuen, nazioarteko ekoizpenaren eta merkataritzaren espezializazio eraginkorra (normalean "lanaren nazioarteko zatiketa" gisa ezagutzen dena) sortuko zela, merkataritza-trukeak areagotuko zituena eta, ustez, herrialde guztiei mesede egingo ziena, haien espezializazio-esparrua edozein izanda ere. Ikuspegi horretatik, arazoa sortzen zen ondasun baten ekoizpenean beste batzuen aldean erabateko abantailarik ez zuten herrialdeentzat.

Teoria horretatik abiatuta, David Ricardo britainiarrak (1772-1823) bere abantaila konparatiboaren teoria hobetua sortu zuen. Horren arabera, ekoizpenaren espezializazioa eta horren araberrako esportazioa

onuragarria zen edozein herrialderentzat, beste batekiko erabateko abantailarik izan gabe ere kostuen aldetik. Alde horretatik, funtsezkoena litzateke herrialde bakoitza beste herrialde batzuekiko abantaila erlatiborik handiena duten ondasunetan espezializatzea, hau da, kostu erlatiborik txikiena dutenetan. Hala ere, teoria hori mugatua eta amaigabea suertatu zen oinarrian zituen suposizioek eraginda, eta zenbait hobekuntza izan zituen aurrerago. John Stuart Mill (1806-1873), Alfred Marshall (1842-1924) eta Francis Edgeworth (1845-1926) egileen eskutik iritsi zen besteak beste, baita geroago ere beste ekonomialari batzuen garapen sakonagoei esker, hala nola Eli Heckscher (1879-1952), Bertil Ohlin (1899-1979) eta Paul Samuelson (1915-1959). Eta azkenik, denboran gugandik hurbilago, nazioarteko merkataritzaren teoria berrien kasuan Paul Krugmanen (1953-) ekarpena litzateke aipatzekoa.

Teoria-multzo horiek guztiek aurrekoak osatu dituzte, suposizio errealistagoak eta konplexutasun handiagoko errealitateetarako azalpenak erantsiz. Baina, edonola ere, guztiek uste dute nazioarteko merkataritzaren liberalizazioak mesede egiten diela bertan parte hartzen duten guztiei, ondoko eragileen ondorioz: merkatuen zabaltzea, ekoizpen-faktoreen erabilera eraginkorra, kontsumitzaileentzako prezio baxuagoak, eta errenta-, ekoizpen- eta ongizate-maila handiagoen sorrera.

Hori guztia kontuan hartuta, zera ondoriozta daiteke, ezin dela beste analisi-ildorik aurkitu edo zentzuzko beste aukerarik egin nazioarteko merkataritza-politiken arloan, merkataritzaren liberalizaziotik pasatzen ez dena. Hala ere, paradoxikoki, teoria hegemoniko horietatik haratago, adierazi beharra dago merkataritza askearekiko teoria kritikoek ere euren lekua izan dutela eta jarraitzen dutela izaten, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioaren ondorio kaltegarrien azterketan oinarrituta. Era berean, historian zehar, merkataritza politikaren arloan, lehia askea mugatzeko oso gobernu desberdinek izan duten jokabidea praktika protekzionistez eta gobernuen esku-hartze mota ugari beteta dago.

Horrela, merkantilismoaren lehen aurrekari historikoen ondoren, Estatuak ekonomian absolutismo monarkikoaren garaian izan zuen esku-hartze indartsuaren alde egin zuelarik, protekzionismo komertzialaren lehen defendatzaile nagusia Friedrich List (1789-1846) ekonomialari germaniarra izan zen XIX. mendearen bigarren laurdenean. Baina bere lana garai hartako Estatu Batuetako esperientzian oinarritu zen, zenbait urtez han erbesteratua bizi izan baitzen. Izan ere, Listek Alexander Hamiltonengandik (1757-1804) eta hark bultzatutako politika protekzionistetatik ikasi zuen, alegia, George Washingtonen gobernuko Altxorraren lehen idazkaria eta politika ekonomikoaren arduraduna izan zen horrengandik. Izan ere, Estatu Batuetako eta Europako hainbat herrialdetako gobernuak XIX. mendean eta XX. mendeko lehen hamarkadetan (batez ere gerren arteko garaian eta 30eko hamarkadako krisiaren ondoren) izandako praktika protekzionistak oso ezagunak eta dokumentatuak dira historia ekonomikoari buruzko literaturan. Aldiz, harrigarria bada ere, gaur egun merkataritza askearen alde dauden gobernuen eta nazioarteko erakundeen diskurtso ofizialek "kapitalismoaren historia ofizialaren" errealitate hori ezkutatzeko joera izan dute (Chang, 2013).

II. Mundu Gerraren ondoren, GATTaren esparru aldeaniztunean nazioarteko merkataritza askea sustatzearen aldeko testuinguru batean, "gerren arteko tartearen" murrizketa eta politikari irtenbidea eman nahian, logika liberalizatzaile horri buruzko hainbat analisi kritiko ere sortu ziren. Analisi eta posizionamendu horiek Latinoamerikako Estrukturalismoak eta Mendekotasunaren Teoriak garatu zituzten, eta agerian utzi zuten sistemaren Erdiguneko (aberatsak, "Garatuak") eta Periferiako (txiroak, "Azpigaratuak") herrialdeen arteko merkataritza-harremanak oso desparekotasun-baldintza nabaritan garatzen zirela truke horien kostu eta irabazien banaketari dagokionez.

Lkuspegi horretatik, horrek guztiak honako hauek sortzen zituen herrialde txiroetan: kanporako gehiegizko joera zuten ekonomiak, ekoizpen-egitura desorekatuak, eta gehiegizko espezializazioa lehengaien ekoizpenean eta esportazioan. Horrela, ekonomialari horiek ulertzen zuten herrialde horien truke-harreman erreala hondatu egiten zela manufakturen ekoizpenean espezializatutako Erdiguneko herrialdeekiko, azken horiek balio erantsi handiagoa sortzen baitzuten euren ekoizpen eta esportazioetan. Besteak beste, Raul Prebisch (1901-1986) edo Hans Singer (1910-2006) egile estrukturalisten azterketetan aurkitzen ditugu horrelako planteamenduak, politika ekonomikoaren proposamen zehatzak egitera eramane zituztenak, hala nola IOI (inportazioak ordezkatzeko industrializazioa, alegia, gaztelaniaz "ISI" deiturikoa) ereduaren aplikazioa. Beste horrenbeste esan genezake André Gunder Frank (1929-2005), Theotonio Dos Santos (1936-2018) edo Samir Amin (1931-2018) "dependentisten" analisisiei buruz; besteak beste, sistema kapitalistarekiko eta

herrialde aberatsekiko merkataritza-harremanen "deskonexioa" proposatzen zuten, euren ustez harreman horiek "azpigarapenaren garapena" eragiten zutelako.

lido horretako azterketek eta proposameneak, grisen tonalitate eta ñabardura desberdinak tarteko, zenbait ekonomialarik kanpoko lehia aldi baterako mugatzeko proposamena eta babeserako neurrien aplikazioa bultzatu dute oinarritzko mekanismo gisa, lehen sektore esportatzailean gehiegizko espezializazioari aurre egiteko eta ekonomia periferikoetan industrializazio prozesuak sustatzeko asmoz. Horrela, aldi baterako nolabaiteko babesak eskalako ekonomien aprobetxamendua ahalbidetuko luke industria baten tamaina handitu eta kostuak murriztu ahala, lehiakortasuna handitu eta neurri protekzionistak pixkanaka murrizteko aukera zabaldu arte (Galaso, 2013).

lido horretan, aurretik adierazi den bezala, ez litzateke ahaztu beharko herrialde garatu gehienek neurri protekzionistak aplikatu dituztela historiako une desberdinetan beren industria jaioberriak sortzeko eta indartzeko, nahiz eta paradoxikoki azken hamarkadetakoko gobernu asko merkataritza askearen defendatzaile sutsu bilakatu diren, hain urruna ez den iragana ahaztuz. Denboran gugandik gertuago, antzeko egoerak ikus daitezke Hegoaldeko ekonomia arrakastatsuenetako batzuen kasuan, hala nola Asiako ekialdeko eta hego-ekialdeko herrialde industrializatuetan, non, besteak beste, Hego Korea, Taiwan, Singapur eta geroxeago Txina nabarmentzen diren. Hori guztia gauzatu ahal izateko, gero eta osagai teknologiko handiagoa duten manufaktura-esportazioen irekieraren eta produkzio-espezializazioaren aurretik, esku-hartze publiko nabarmena izan da herrialde horietan (Chang, 2013).

2. Nazioarteko merkataritzaren egungo ezaugarriak

Atal honetan, nazioarteko merkataritzak industria-iraultzatik gaur egunera arte izan duen bilakaera azalduko dugu. Era berean, nazioarteko merkataritza-fluxu nagusien banaketa geografikoa eta sektoriala ere aztertuko ditugu, eta bereziki azpimarratuko dugu enpresa transnazionalak eta balio-kate globalek testuinguru horretan betetzen duten eginkizuna.

Duela berrehun urte, industria-iraultzak bultzatuta, munduko ekonomia nabarmen hazten hasi zen. Hasiera batean, prozesu motela eta herrialde gutxi batzuetan kontzentratua izan zen. Hala ere, dinamika hori geografikoki bizkortzen eta zabaltzen joan zen, eta, XIX. mendearen bigarren erdian, Europako zenbait herrialde (Britainia Handia, Alemania, Frantzia, Herbehereak eta Belgika, batez ere) eta Estatu Batuak nabarmendu ziren nazioarteko ekonomian eta merkataritzan zuten protagonismoagatik. Merkatuen irekiera erlatibo gertatu zen; izan ere, 1870 eta 1913 artean nazioarteko merkataritza ekoizpena baino lau aldiz azkarrago hazi zen. Dinamismo hori garraioetan eta komunikazioetan izandako aurrerapenen ondorio izan zen, hala nola lurrun-makinen, trenbidearen eta telegrafo-kablearen garapena, besteak beste.

Garrantzi handiko prozesua izan zen arren, ekonomien talde oso txiki bati baino ez zion eragin. Izan ere, munduko ekonomiaren zatirik handiena bazterrean geratu zen, eta, horrela, gaur egun arte iristen den munduko merkataritza-sistemaren berezko ezaugarrietako bat ikusten hasi zen. Alde batetik, Erdigunea osatzen duten eta trukeak kontrolatzen dituzten herrialdeak izango ditugu, eta, bestetik, herrialde periferikoak daude, zeinak nazioarteko merkataritza-fluxu horietan oso parte txikia adierazten duten.

Erdiguneko herrialdeetatik Periferiako herrialdeetara manufakturatutako produktuak esportatzearen ondorioz, produktu horiek aurretik zegoen artisaui-industria desagerrarazi zuten, eta, beraz, Periferiako herrialde horien partaidetza jaitsi egin zen munduko manufakturen ekoizpenean, 1860 eta 1913 artean. Aldi berean, Erdiguneko herrialdeetan sortutako industriak behar bezala babesten ziren, lehen faseetatik nazioarteko lehiari aurre egin behar izan gabe garatu ahal izateko (Chang, 2013).

1914-1945 gerra arteko garaian, aurreko integrazio prozesuaren joera aldatu zen. Ekonomia erritmo motelagoan hazi zen eta posizio protekzionistetara itzuli ziren Erdiguneko herrialdeak. Munduko merkataritzaren hazkunde-tasa nabarmen jaitsi zen; izan ere, munduko merkataritzaren bolumena laurden bat baino gehiago murriztu zen.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren (1945), garai berezi bat hasi zen, "Kapitalismoaren Urrezko Aroa" edo "Hogeita hamar loriatsuak" izenez ezagututakoa, petrolioaren krisia lehertu zen arte (1973). Europako herrialdeetan, AEBetan eta, geroago, Japonian garatu zen metaketa fordistaren ereduak ekoizpenaren hazkunde-tasa oso handiak ekarri zituen. Aldi berean, etengabe hazten ari ziren ekonomiak nazioarteko merkataritza-eredu bati lotuta zeuden. Xehetasun gehiegitan sartu gabe ere, azpimarratzekoa da eredu horrek berekin zekarren energia-iturri fosilen kontsumo handia, batez ere petrolioarena, eta horrek Iparraldeko herrialde horien mendekotasun energetiko handia ekarri zuen petrolio-esportatzaile handiekiko. Era berean, industria-ekoizpenaren erritmo handiei eusteko, beharrezkoa zen lehengaien eta elikagaien hornidura ziurtatua izatea, eta hori batez ere Periferiako herrialdeetan ekoizten zen.

Japoniako ekonomia esportazioen sustapenean oinarrituz garatu zen heinean, inguruko beste herrialde batzuek (Hego Korea, Hong Kong, Taiwan eta Singapur, "Asiako herensugeak" ere deitua) haren urratsei jarraitu zieten, eta 70eko hamarkadan manufakturen esportazioa nabarmen handitzea lortu zuten. Lehen belaunaldiko herrialde industrializatu berri horiek salbuespen handizat hartu ohi dira; beren egitura ekonomikoa nabarmen aldatzea lortu zuten, gero eta manufaktura sofistikatuagoen esportatzaile handiak izatea lortu zuten, eta, aldi berean, beren per capita errenta nabarmen handitzea.

II. Mundu Gerraren osteko aldian, nazioarteko testuinguru berri bat ere finkatu zen. Erakunde berriak (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa) sortu ziren eta nazioarteko merkataritza arloan GATT akordioa sinatu zen, eta, horrela, zeuden arantzelak murriztu egin ziren, eta nazioarteko merkataritza erraztu eta liberalizatu egin zen. Merkataritza-ordena berri horren onuradun nagusiak ekonomia aurreratuak eta lehen aipatutako Asiako herrialde batzuk izan ziren, erregulazio orokorretik kanpo utzi baitziren herrialde periferikoen ekonomietarako funtsezkoak ziren sektoreak, hala nola nekazaritza edo ehungintzako eta jantzigintzako produktuak. Enpresa transnazionalak ere ordena berri horretan abantaila handiak atera zituzten.

XX. mendeko 70eko hamarkadaren bigarren erdia trantsizio-garaia izan zen, non fordismoaren metaketa-ereduak bere mugak erakutsi zituen eta garai neoliberal berriaren oinarriak eratzten hasi ziren. Joan den mendeko 80ko hamarkadaz geroztik, merkataritza-liberalizazioa sustatzen zuen esparru instituzional finkatua, komunikazio- eta garraio-aurrerapenak, ETNen estrategiak eta ekoizpen-prozesuaren faseen zatiketaren eta deslokalizazioan oinarritutako industria-antolaketa berri batean sakontzeak hazkunde nabarmena eragin zuten merkataritza-trukeetan.

Eredu fordistaren krisiaren aurretik, nazioarteko merkataritza, batez ere, nazio mailan ekoiztutako ondasunen hainbat herrialderen artean trukatzeko zentzuzko (edo industriarteko merkataritzan). Baina ETNen eta Balio Kate Globalen (BKG) protagonismoa dela eta, merkataritza hori gero eta gehiago oinarritzen da antzeko ondasunen trukaketan. Eta estimatzen da nazioarteko merkataritzaren % 60 inguru ekoizpen-kate zabalago baten parte diren bitarteko ondasun eta zerbitzuei dagokiela. Horrela, truke horietako asko enpresa transnazional bereko filialen artean gertatzen dira. Hala ere, prozesu horiek indarra galtzen ari dira azken urteotan, proiektu berriek errentagarritasun txikiagoa dutelako eta, era berean, ekoizpenaren zatikate- eta deslokalizazio-prozesuak berak dituen antolaketa-mugengatik (UNCTAD, 2015 eta 2017).

2.1. Banaketa geografikoa

Industria-iraultzatik XX. mendeko 70eko hamarkadara arte, nazioarteko merkataritza lanaren nazioarteko banaketa klasikoak markatutako eskeman oinarritua zegoen. Hala, herrialde aurreratuenean nagusiki manufaktura esportatzen zituzten, eta herrialde periferikoak, aldiz, lehengaien eta elikagaien esportazioan zeuden espezializatuta. Azken hamarkadetan, banaketa hori aldatu egin da, batez ere, Hegoaldeko herrialdeen talde batek esportatzeko gaitasun handia lortu duelako manufakturen alorrean. Azpimarratzekoa da manufakturen esportazioaren arrakasta Hegoaldeko herrialdeen talde txiki bati baino ez dagokiela, eta asko direla nazioarteko trukeetatik kanpo geratzen direnak. Horrela, nazioarteko merkataritzak hiru polo handi ditu gaur egun: Ipar Amerika, Ekialdeko Asia eta Europa.

Merkataritza-fluxuen zati handi bat eskualde edo eragin-eremu beraren barruan egiten da, sarritan garrantzi handiko merkataritza-itunak daudelako. Kasu nagusia Europar Batasunarena da, bertako herrialdeen artean

salgaien eta zerbitzuen fluxu handia baitago. Horrexegatik, eskualde barruko merkataritza eta eskualdeen arteko merkataritza bereizi behar dira, eta ohikoa da merkataritza-fluxuak erregionalizatzeko jarraibidea aipatzea, azken urteotan truke mota hori areagotzen ari delako eskualdeen arteko trukeekin alderatuta.

Denboran zehar (1948tik aurrera alegia), Iparraldeko herrialdeek pisu erlatiboa irabazten dute munduko merkataritzan 1973ra arte. Geroago, merkatu-kuota bat uzten dute Hegoaldeko ekonomia gutxien alde, nahiz eta nazioarteko trukeak nagusitzen jarraitzen duten. Datuak aztertzean egiazta daiteke nazioarteko merkataritzan esportatzaile handien talde bat dagoela: ekonomia aurreratu nagusiak eta Hegoaldeko ekonomia jakin batzuk, azken urteotan esportazioak handitu dituztenak, hala nola Txina, Asiako herensugeak (Hego Korea, Hong Kong, Taiwan eta Singapur), Asiako tigreak (Thailandia, Vietnam, Malaysia), eta Mexiko, besteak beste. 30 ekonomia nagusiek munduko salgaien % 83,6 esportatzen dute, eta horrek dagoen kontzentrazio-maila altua adierazten du.

1. taula: Salgaien munduko esportatzaile eta inportatzaile nagusiak, 2019 (milaka milioi dolarretan eta ehunekotan)							
Ordena	Esportatzaileak	Balioa	%	Ordena	Inportatzaileak	Balioa	Partea
1	Txina	2.499	13,2	1	Ameriketako Estatu Batuak	2.568	13,4
2	Ameriketako Estatu Batuak	1.646	8,7	2	Txina	2.077	10,8
3	Alemania	1.489	7,9	3	Alemania	1.234	6,4
4	Herbehereak	709	3,8	4	Japonia	721	3,7
5	Japonia	706	3,7	5	Erresuma Batua	692	3,6
6	Frantzia	570	3,0	6	Frantzia	651	3,4
7	Koreako Errepublika	542	2,9	7	Herbehereak	636	3,3
8	Hong Kong, Txina	535	2,8	8	Hong Kong, Txina	578	3,0
9	Italia	533	2,8	9	Koreako Errepublika	503	2,6
10	Erresuma Batua	469	2,5	10	India	484	2,5
	Mundua	18.889	100,0		Mundua	19.238	100,0

Iturria: MME.

Hegoaldeko gainerako herrialdeak korrante nagusietatik baztertuta daude, eta horien erakusgarri nagusiak Gutxien Aurreratutako Herrialdeak (GAH) dira. Horiek nazioarteko merkataritzan duten parte-hartzea oso txikia da (% 1 inguru). Horrela mantendu da azken hamarkadetan, eta horren gorabeherak esportatzen dituzten lehengaien prezioen gorabeheren arabera dira batez ere. Edozein modutan, nazioarteko merkataritzaren egungo eskemak sortzen dituen onuren banaketatik kanpo mantentzen dira herrialde hauek.

Horrez gain, garrantzitsua da ekonomien dinamika inportatzaileak aztertzea, haien merkataritza-saldoa behar bezala identifikatu ahal izateko. Kasu honetan, inportazioak herrialdeen erosteko gaitasunaren arabera dira, eta, horregatik, salgaien inportatzaile nagusiak errenta altuko herrialdeak izango dira, hala nola Estatu Batuak, Alemania, Japonia, Erresuma Batua, etab., Txinarekin batera.

2.2. Banaketa sektoriala

Garapenaren eta ekonomien egiturazko aldaketaren ikuspuntutik, lortzen diren ekoizpen- eta esportazio-bolumenak garrantzitsuak dira, baina, neurri berean, nazioarteko merkatuetan ekoizten eta saltzen diren produktu-motak ere funtsezkoak dira. Horregatik, beharrezkoa da identifikatzea zeintzuk diren nazioarteko merkataritzaren jarraibide sektorialak.

Atal honetan, munduko esportazioen barruan dauden bi kategoriarik egingo zaie erreferentzia. Lehenengo kategorian (salgaiak), bi multzo handitan banatzen diren ondasunak izango ditugu: oinarritzako produktuak (lehengaiak eta elikagaiak) eta manufakturak. Oinarritzako produktuak nekazaritzako elikagaiak, mineralak eta metalak, eta energiarekin lotutakoak dira (petrolioak, gas naturala, etab.). Bigarren taldean, industria-produktuak daude eta ezaugarri askotariko manufakturak egungo dira. Horregatik, azpialdeetan sailkatu ohi dira, fabrikazioaren eduki teknologikoaren arabera. Horrela, eduki teknologiko baxu, ertain eta handiko jardura-adarrak aurkituko ditugu.

Bigarren kategorian, zerbitzuen merkataritza egongo da. 2014tik, nazioarteko merkataritza osoaren bostena izango da, eta oso izaera desberdineko jardura ekonomiko batzuk izango ditu; horien artean, beren bolumenagatik, enpresetarako zerbitzuak (aseguruak, garraioa, etab.) nabarmentzen dira.

Azken hamarkadetan, nazioarteko merkataritzak aldaketa nabarmenak izan ditu; lehengaiak eta elikagaiak garrantzi erlatiboa galdu dute merkataritza-fluxuen eta manufakturen barruan, eta, berrikiago, zerbitzuek pisu handiagoa hartu dute testuinguru horretan.

Gauzak horrela, lehengaien eta elikagaien nazioarteko merkataritzak bi errealitate oso desberdin ditu. Lehengaien artean erregaiak daude, eta petrolioak ekoizten duten herrialdeen errealitatea oso desberdina da gainerako herrialde primario esportatzaileenarekin alderatuta. Horregatik, ez gara horien azterketan geldituko, haien bilakaera produktuaren prezioaren gorabeheren oso mende baitago.

Azken urteotan nekazaritzako produktuen merkataritzaren balioa nabarmen handitu bada ere, nazioarteko merkataritzan duen partaidetza baxua izaten jarraitu du; munduko salgaien guztizkoaren % 9 inguru izan zen 2016an. Kontraesankorra dirudien arren, garapen bidean dauden herrialdeek nekazaritzako produktuen esportazioen % 40 inguru biltzen dute, eta, beraz, Iparraldeko herrialdeak dira mota horretako salgaien esportatzaile nagusiak. Hala ere, Hegoaldeko herrialde gehienak lehen esportatzaileak dira, hau da, beren esportazio nagusiak lehengaiak eta elikagaiak osatzen dituzte.


Garapen bidean dauden herrialdeak, eta horien barruan Gutxien Aurreratutako Herrialdeak, nekazaritza-produktuen nazioarteko merkataritzaren protagonistak ez izan arren, produktu horien esportazioa da kasu askotan beren ekonomien oinarria. Horrela, diru-sarrera horiekiko mendekotasun handia ikusten da, eta sarritan oso produktu gutxiatik (hiru edo gutxiago) datozen esportazio-sarreraren kontzentrazio izugarria izaten da horien kasuan.

Bestalde, manufakturek salgaien munduko merkataritzaren % 70 osatzen dute. Tradizioz, Iparraldeko herrialdeak izan dira salgai horien esportatzaile nagusiak, baina joera hori aldatu egin zen jardura-sektore batzuetan 70eko hamarkadan, Asiako hego-ekialdeko herrialde batzuk balio erantsi txikiko industria-produktuen (jantzigintza eta ehungintza, adibidez) bolumen handia esportatzen hasi zirenean. Latinoamerikako herrialde batzuk ere (Mexiko, batez ere) 90eko hamarkadatik aurrera hasi ziren horrelako produktuen bolumen handia esportatzen. Ondoren, Txina nazioarteko merkatuetan sartu zenean, Hegoaldeko herrialdeetako manufakturen esportazioak are gehiago hazi ziren, eta dinamika hori gaur egunera arte iritsi da.

Hori dela eta, azpimarratzekoa da merkataritzaren liberalizazioak eta nazioarteko merkataritza-fluxuen areagotzeak ez dakartzatela automatikoki etekinak munduko herrialde guztientzat. Munduko merkataritzaren liberalizazioak merkatuen kontzentrazioa eta enpresa transnazionalen nagusitasuna bultzatu du, eta, aldi berean, ahuldu egin du langileen posizio erlatiboa (UNCTAD, 2018).

Hain zuzen ere, 1. grafikoa ikus daitekeen bezala, Hegoaldeko manufakturen esportazioak Hegoaldeko hamar herrialdeetan metatzen dira, azken hiru hamarkadetan industria-produktuen esportatzaile handi bihurtzea lortu baitute, eta Hegoaldeko manufakturen esportazio guztien % 84 biltzera ailegatu dira. Oro har, hamar ekonomia horiek manufakturetako produktuen munduko esportazioen % 7,1 ziren 1980an, % 33 2012an eta % 38 2015ean (MME, 2016).

1. grafikoa. Hegoaldeko manufakturen 10 esportatzaile handienen proportzioa manufakturen munduko esportazioetan, 1980-2014 (%)



Iturria: MME.

Manufakturen esportazioen bolumenaz gain, Hegoaldeko zenbait herrialde nabarmentzen dira esportatzen dituzten produktuen balio erantsiaren igoeragatik. Horrela, Hegoaldeko herrialde gehienek beren esportazio industrialak balio erantsi txikiko sektoreetan zentratzen jarraitzen duten bitartean, talde txiki batek, Asiako herensugeek eta, neurri txikiagoan, Txinak, gero eta osagai teknologiko handiagoko ondasunak, alegia, gero eta sofistikatuagoak, ekoiztea eta esportatzea lortu dute. Horrela, herrialde horietan, industrializazio-prozesuarekin batera, aldaketa sakonak gertatzen dira beren ekonomietan, eta horrek per capita errenta igotzea dakar.

Hala ere, Hegoaldeko herrialde asko estrategia horiek inplementatzetik urrun daude. Mexiko, adibidez, erdi eta goi teknologiko manufakuratutako produktuen esportazio-bolumen handiko ekonomia gisa ere agertzen da, baina mota horretako produktuak osagaien muntaietan zentratzen den industria makilatzailearen emaitza dira (eskulan merkean oinarritutako produkzio-prozesuaren ondorioz).

2.3. Balio-kate globalak

Enpresa transnazionalak (ETN) dira gaur egun nazioarteko merkataritzaren protagonista eta bultzatzaile nagusiak. Ez da fenomeno berria, baina II. Mundu Gerraren ondoren gero eta indar handiagoz ari dira beren estrategiak ezartzen nazioartean.

Jarraitu duten ekoizpen-estrategietako bat produkzio-prozesua zatikatzea eta zati bakoitza ekonomikoki onuragarriena den lekuan kokatzea izan da. Horregatik, ETN horiek munduko balio-kateak edo balio-kate globalak (BKG) kontrolatzen dituzte, eta nazioarteko trukeak behin betiko bultzatu dituzte azken

hamarkadetan. Izan ere, kalkulatzen da munduko merkataritzaren ia % 50 munduko balio-kateetan inplikaturagoela, nahiz eta bere garrantzi erlatiboa gainbehera doala dirudien (BM, 2020).

Garapen bidean dauden herrialdeek balio erantsi txikieneko eta eskulan intentsiboaren jarduerak garatzen dituzte BKGetan. Ikuspegi ortodoxoagoaren arabera, parte-hartze hori lehen fasea baino ez litzateke izango aurrera egingo duen prozesu batean, eta gero eta ekoizpen sofistikatuagoak (kapitalean intentsiboagoak eta balio erantsi handiagokoak) egiten lortuko lukete herrialde horiek. Nahiz eta progresio hori herrialde-multzotxi batean identifika daitekeen –Asiako herensugeak– salbuespen modura har daiteke, eta ez arau orokor gisa. Hau da, balio-kateetan inplikaturago dauden Hegoaldeko ekonomia gehienek ikusten dute progresio hori ez dela gertatzen, eta gutxien sofistikaturago ekoizpen-faseetan harrapatuta geratzen dira luzarorako.

Askotan, Hegoaldeko herrialdeek Eremu Ekonomiko Bereziak (EEB) sortzen dituzte inbertsio horiek erakartzeko. Horietan, gobernuek jarduera ekonomikoaren finkapena sustatzen dute, batez ere, zerga gutxiago ordainaraziz eta hainbat arlotan (lanekoa, ingurumenekoa, etab.) arauketa arinagoa eginez. Hori gero eta gehiago erabiltzen den estrategia da: 2002an, 3.000 EEB zeuden erregistraturago; 2018an, berriz, 5.400 (UNCTAD, 2019b).

Hegoaldeko EEBa ezartzeak, teoriarik, lagun dezake inbertsioak erakartzen, enplegua sortzen, esportazioak handitzen eta, industria-politika egokiarekin batera, ekonomia osoa industrializatzen eta ekoizpena dibertsifikatzen. Hala ere, balizko ondorio positibo horiek ez dira automatikoki gertatzen. Izan ere, kasu askotan frogatu da, balantzea egin ondoren, eremu horiek ez dutela modu erabakigarrian bultzatu atzerriko inbertsioak erakartzea. Horrelako politikek arrakasta izan dezaten, estrategia integralaren diseinu xehatua egin behar da, aplikatu beharreko politiken esparru bateratua eta dagokion ekonomian dauden gaitasunetara egokitzen den EEbaren garapen-programa kontuan hartuta (UNCTAD, 2019b; Munduko Bankua, 2020).

Hala ere, azken urteotan BKGetan aldaketa asko ari dira gertatzen, eta estrategia honen mugak agerian geratu dira. Litekeena da hurrengo hamarkadetan aldaketa sakoneko aldia izatea nazioarteko ekoizpenerako. Besteak beste, balio-kateen zatiketa, balio agregatuaren kokapena, hedapen geografikoa eta enpresa transnazionalen gobernantza-ezaugarriak alda daitezke, ziurgabetasunari eta egungo nazioarteko merkataritzaren oinarri diren jarraibideei aurre egin ahal izateko (UNCTAD, 2020b).

1. laukia: Merkataritza eta generoa

Nazioarteko merkataritzaren eta generoaren arteko harremana konplexua da, eta ekonomiaren eta gizartearen dinamika eta tokiko testuingurua zehatz-mehatz ulertzea eskatzen du. Hori behar-beharrezkoa da garapen ekonomikoa eta pobrezia murrizteko katalogatzeko eta, aldi berean, emakumearen ahaluntzea eta genero-berdintasuna sustatzeko politikak landu ahal izateko. Merkataritza-politikek ez dute eragin bera biztanleriaren segmentu guztietan, besteak beste, gizonengan eta emakumeengan. Merkataritzaren liberalizazioa sekulako indarra izan daiteke bai emakumeei aukera berriak eskaintzeko edo baita genero-aurreiritziak eta diskriminazioa oharkabean sendotzen edo areagotzen jarraitzeko ere.

Garapen bidean dauden herrialdeetan, 1960ko hamarkadaz geroztik esportaziora bideratutako politikak hartzearen ondorioz, langile-kopuru handi bat, batez ere emakumezkoak, eskulanaren manufaktura-ekoizpen intentsibora igaro da, eta aldaketa horri eskulanaren feminizazioa esaten zaio. Nazioarteko lehia handiaren eraginpean dauden eskulaneko industria intentsiboak lanaren errendimenduan oinarritzen dira, gaitasunetan edo aktiboetan oinarritu beharrean. Horrela, bada, esportaziora bideratutako ekoizpenean emakumezko langileekiko aurrekaririk gabeko lehentasuna nazioarteko lehia biziak eskatzen zuen kostuak murrizteko eskulan merkean zegoen oinarrituta. Izan ere, ikerketek erlazio positiboa erakutsi dute esportazioetarako oinarritzko manufakturen proportzioaren eta emakumeen enpleguaren proportzioaren artean.

Generoan oinarritutako segregazioa eskualde guztietan gertatzen den fenomeno da, eta generoen arteko soldata-arrakalekin batera dator normalean. "Gizonen lan" gisa eta "emakumeen lan" gisa hartzen denaren ideiek emakumeak industria intentsiboetara bideratzeko joera dute, hala nola jantziak, ehunak, produktu elektronikoen arinak eta jostailuak; gizonak, berriz, gaitasunen eta kapitalaren erabilera intentsiboak duten sektoreetan nagusitzen dira. Askotan, espezializazio- eta hezkuntza-maila baxuak, mugikortasun txikiagoak eta denbora gutxi izateak eraginda, emakumeek gizonen baino joera handiagoa dute enplegu prekarioak onartzeko. Gainera, genero-estereotipoek emakumearen irudia indartu dute, langile otzan gisa eta lan errepikakor eta zehatzetarako aproposa delakoan.

Horren ondorioz, emakumeek segregazio horizontalari eta bertikalari egiten diete aurre; lehenengoa, gizonen eta emakumeen banaketa desberdinagatik, hainbat okupazio eta funtziotan, eta bigarrena, gizonak, normalean, okupazio-hierarkiaren goiko aldean biltzen direlako, eta emakumeak, berriz, beheko aldean. Genero-bereizketa da generoagatiko soldata-desberdintasunaren arrazoi nagusietako bat, hau da, gizonen eta emakumeen soldaten artean dagwoen aldea antzeko lanak eginda ere. Balio-kate globaletan integratzeko ahaleginetan, enpresa askok nahita aukeratu dute estrategia bikoitz bat, negoziazio-ahalmen txikiagoa duen emakumezko eskulanaren kontratazioan oinarritua, batetik, eta langile iraunkorren kopuru txiki bat, kualifikatuagoak eta hobeto ordainduak, gizonak izan ohi direnak, bestetik. Estrategia horri esker, enpresek kostuak murriztu ahal izan dituzte, bai soldatenak, bai bestelakoak, hala nola gizarte-asegurua eta beste prestazio batzuenak, eskariaren bilakaerara egokituz, eta, horrela, produktuak epe laburretan entregatu ditzakete.

Ondoko honetatik hartutako testua: UNCTAD (2016): El comercio como instrumento para el empoderamiento económico de la mujer. Nota de la secretaria de UNCTAD. TD/B/C.I/EM.8/2

3. Esparru instituzionala

Nazioarteko merkataritza arautzeko esparrua nahiko berria da termino historikoetan, eta, beste esparru batzuetan bezala, nazioarteko erakundearen arkitektura eraikitzeke prozesua XX. mendearen erdialdean hasi zen, II. Mundu Gerra amaitu ondoren, "merkataritza-sistema aldeaniztunaren historia" dei ginezakeena osatuz.

3.1. Aurrekariak: GATT eta bere printzipioak

GATT (Aduana eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra, GATT izenez ezagunagoa, ingelesezko sigletan) 1947an sortu zen Genevan, 23 herrialderen arteko behin-behineko akordio gisa, haien arteko muga-zergak murrizteko. Bitartean, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) esparruan, Habanako Konferentziaren barruan (Merkataritzaren Nazioarteko Erakundea sortzeko ahaleginetan), gobernu batzuen eta besteen arteko desberdintasunak konpontzen saiatzen ari ziren. Beraz, akordio gisa jaio zen, eta ez ordezkari zabalagoko erakunde gisa, hasiera batean nahi zen bezala, eta gerraosteko garaian nazioarteko merkataritzaren arloko erreferentzia-esparru arautzaile bihurtu zen, bai eta nazioarteko ordena ekonomikoaren eraikuntzaren hirugarren zutabe ere, Bretton Woodseko erakundeekin (Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankua) batera. Akordioa sinatu zuten herrialdeek nazioartean gutxiengoa osatzen zuten arren, nazioarteko merkataritzaren % 57 metatzen zuten, herrialde aberatsetan oso kontzentratuta (Zabalo, 2000).

1. taulan ikus daitekeenez, sortu zenetik, GATT akordioan parte hartzen zuten herrialdeen kopurua eta herrialde horiek nazioarteko merkataritzan zuten pisua handitzen joan zen hurrengo hamarkadetan, akordioa negoziatzeko 8 itzulitan zehar, lauogeita hamarrek hamarkadaren erdialdera arte. Horrela, akordioa 124 kidera iritsi zen Uruguaiako erronda amaitzean, salgaien nazioarteko merkataritzaren % 89 pilatuz. Era berean, nahiz eta intentsitate desberdinarekin, hamarkada horietan zehar merkataritza liberalizatzeko prozesu progresiboa ikusi zen, gehienbat muga-zergen hesiak murriztean zentratzen dena, batez ere lehenengo 5 itzulietan.

1. taula. GATTen negoziazio-itzuliak

Negoiazio-itzulia	Partaide-kopurua	Herralde kideen % munduko merkataritzarekiko	Muga-zergen batez besteko murrizketa	Muga-zerga 1930ekoaren % gisa	Muga-zergak ez diren oztopoen arauketa	Baztertutako/ barneratutako gaiak
1. Geneva, 1947	23	% 57	% 21,1	52,7	EZ	Nekazaritza baztertuta
2. Annecy, 1949	33	-	% 1,9	51,7	EZ	Nekazaritza baztertuta
3. Torquay, 1950-51	34	% 67*	% 3	50,1	EZ	Nekazaritza baztertuta
4. Geneva, 1955-56	22	-	% 3,5	48,9	EZ	Nekazaritza baztertuta
5. Dillon, 1961-62	45	-	% 2,4	47,7	EZ	Nekazaritza baztertuta
6. Kennedy, 1964-67	48	% 73*	% 36	30,5	Apur bat	Nekazaritza eta oihalgintza baztertuta
7. Tokio, 1974-79	99	% 85*	% 29,6	21,2	BAI	Nekazaritza eta oihalgintza baztertuta
8. Uruguai, 1986-94	124	% 89*	% 38	13,1	BAI	Nekazaritza, oihalgintza, zerbitzuak eta jabetza intelektuala barneratuta

* Gutxi gorabeherako datak: 1953, 1963, 1973 eta 1993 hurrenez hurren
Iturria: Zabalo, 2000

Nazio Batuen Erakundean garai hartan, Hirugarren Mundua zeritzon estatu independente berrien sorrera progresiboarekin batera, egoera honek beren gobernuen atsekabe handia ekarri zuen, eta horrek Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCTAD, ingelesezko akronimoan) 1964an sortzea bultzatu zuen. Erakunde horrek protagonismo handia izan zuen hirurogeiko hamarkadaren amaieran eta hirurogeita hamarreko hamarkadan, merkataritzaren eta garapenaren arteko harremanari buruzko eztabaidak bultzatuz eta herrialde horietako gobernuak nazioarteko merkataritzaren arloan zituzten kezkei ahotsa emanez, bai eta 1974an Nazio Batuen Batzar Nagusian Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria ezartzeko Adierazpena bultzatuz ere (gazteleraz NOEI izenez ere ezaguna). Bere kezka nagusia garai hartako "azpigaratutako herrialdeek" nazioarteko merkataritzan txertatzeko zuten modua zen, haien garapena bultzatu ahal izateko era egoki batean. Hala ere, hainbat hamarkadatan eztabaida, argitalpen eta estatistika interesgarriak sortu dituen erakunde horrek ez du inoiz izan GATT/MMEren arau-esparru instituzionalari emandako ahalmen arautzailerik.

GATTak bere filosofia eta aplikatu beharreko neurriak islatzen dituzten printzipio batzuk ezartzen ditu. Hauek dira aipagarrienak (Maesso eta Gonzalez, 2011):

Diskriminaziorik eza: printzipio honek alde biko akordioak multilateralizatzea bilatzen du, eta Nazio Faboratuenaren Klausularen (NFK) aplikazioan oinarritzen da. Klausula horren arabera, akordioko kide bati emandako abantaila komertzialak automatikoki zabaldu behar dira gainerakoetara, horrela bermatzen baita ez dela egongo naziorik beste bat baino onuragarriagoa izango dena.

Tratu nazionala: printzipio honen arabera, kanpotik inportatutako ondasunei dagozkien muga-zergak aplikatu ondoren, ondasun horiek eta ekoizpen nazionalako haien baliokideek tratua jaso beharko dute.

Arantzelizazioa: printzipio honek esan nahi duena zera da, inportazioen erregulazioaren arloan arantzelak soilik erabili behar direla neurri protekzionista gisa, uste baita horiek direla merkataritza liberalizatzeko prozesuetan tresnarik gardenenak eta neurtzeko errazenenak. Horrek guztiak, printzipioz, "muga-zergak ez diren oztopoak" baztertzea ekarri beharko luke.

Elkarrekotasuna: printzipio honek esan nahi du estatu kide batek beste bati arantzelen murrizketak eskaintzen badizkio, azken horrek antzeko abantailak eman behar dizkiola trukean.

Sendotzea: printzipio honen helburua da muga-zergen liberalizazio-prozesuan atzera egitea eragozte, eta gerora joera protekzionistak galaraztea, muga-zergen gorakada berri batean oinarrituta.

Badirudi printzipio horiek guztiak paperaren gainean gardenak eta aplikatzeko arazorik gabekoak direla, eta, ustez, merkataritzaren liberalizazio progresiboa sustatzeko ildo argia ezartzen dutela, liberalizazio hori funtsezko tresna bihurtuz errenta eta ongizate-maila hobetoagoak sortzeko, bai maila globalean, bai ekonomia bakoitzarentzat, beren garapen-maila edozein izanda ere. Hala ere, errealitatea oso bestelakoa da, sustatutako merkataritzaren liberalizazioak ekonomia batzuetan eta besteetan dituen ondorioei dagokionez, baita printzipio horiek aplikatzeko aurkitutako zailtasunei eta sortutako gatazkei begira ere.

3.2. Munduko Merkataritza Erakundea (MME)

MMEren sorrera 1994ko apirilean Marrakexen ospatu zen Uruguai negoziazio-itzuliaren azken goi-bileraren testuinguruan, 124 herrialde kideren partaidetzarekin, erakundea bera formalki 1995eko urtarrilean sortu bazen ere, eta egoitza Genevan du. Harrez geroztik, GATT MMEren araudian integratuta geratu da, eta araudi horretan, horrekin batera, beste bi adar nagusi daude: Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATS, ingelesezko akronimoan), eta Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko Akordioa (TRIPS, ingelesezko akronimoan). Gaur egun, MMEk 164 estatu kide ditu, 2016an azken kideen sarrerak gauzatu zirenetik.

Erakundearen barruan erabakiak hartzeko organo gorena Konferentzia Ministeriala izeneko da, gutxienez bi urtean behin biltzen dena. MME sortu zenetik, horrelako 12 konferentzia egin dira: Singapurren (1996), Genevan (1998), Seattlen (1999), Dohan (2001), Dohako Erronda izenarekin ezagutzen dena sortuz, Cancunen (2003), Hong Kongen (2005), Genevan (2009 eta 2011), Balin (2013), Nairobin (2015), Buenos Airesen (2017) eta Genevan (2021).

Nazioarteko beste bi erakunde ekonomiko nagusietan ez bezala, hau da, Nazioarteko Diru Funtsean eta Munduko Bankuan, eta GATTen aurrekariari jarraituz, herrialde bakoitzak pisu bera du bozketetan, eta erabakiak aho batez hartzen dira normalean, nahiz eta herrialde batzuek nazioarteko merkataritzan duten pisuak eragina duen baldintzak ezartzeko edo akordioak blokeatzeko/sustatzeko gaitasunean.

Erakundearen kudeaketa orokorra egiteko, MMEk Kontseilu Nagusi bat du, eta, bertan, estatu kideek enbaxadoreak eta ordezkariak-buruak dituzte eguneroko lana egiteko. Kontseilu Nagusiaren mende daude GATTak, GATSak eta TRIPSak administratzen dituzten kontseiluak, eta kontseilukideak Merkataritza Politikak Aztertze Organon eta Diferentziak (gatazkak) Konpontzeko Organon ere biltzen dira. Merkataritza Politikak Aztertze Organoa kide bakoitzaren politikak MMEren araudira egokitzen diren ala ez ikuskatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen da. Bestalde, Diferentziak Konpontzeko Organoa merkataritza-gatazkei irtenbide aldeaniztunak ezartzen saiatzen da. Horrekin zera lortu nahi da: estatu kideek ez ditzatela alde bakarreko neurriak hartu merkataritza-arauen ustezko urraketen aurka, baizik eta Diferentziak Konpontzeko Organora jo dezatela, MMEren alderdi anitzeko izaerarekin koherentzia gordez.

Gatazkak konpontzeko sistema horrek MMEri nazioartean beste inongo erakunde ekonomikorik ez duen ahalmen bat ematen dio, hau da, estatu kideei beren araudia ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko benetako gaitasuna. Hori da, zalantzarik gabe, MMEren ezaugarri bereizgarri nagusia, eta horrek izugarri erakargarri bihurtzen du MME bere irizpideak nazioarte mailan inposatzeko erakunde honetara desbideratu nahi diren hainbat gai ekonomikotan. Horrela, MME bihurtu da "harrera-etxe", gutxi gorabehera "merkataritzarekin zerikusia" duten gai ekonomiko guztietarako, eta esamolde hori esplizituki erabili du gai horiek jorratzean. Lehenik, jabetza intelektualaren eskubideak izan ziren, Uruguaiako negoziazio-itzulian TRIPSen bidez sartuak. Gero, Marrakexen behin betiko akordioa sinatu behar zenean, klausula soziala eta ingurumen-klausula agertu ziren, eta, ordutik, etengabeko eztabaidagai bihurtu dira. Izan ere, Singapurreko Ministerioa Konferentziatik aurrera, arrakasta handirik gabe errepikatu dira MMEen nazioarteko inbertsioen liberalizazioaren, erosketen publikoen eta lehia-politiken gai eztabaidagarriak sartzeko saiakerak, "Singapurreko gaiak" izenez ere ezagutzen direnak (Zabalo, 2000).

Bestalde, GATTaren Uruguako errondan, herrialde garatuetako gobernuak, AEBetako buru, zerbitzuen liberalizazioan aurrera egiten saiatu ziren. Horrela, akordio orokor zabal bat lortu zuten, gero negoziazio sektorialen bidez betetzen joan direna. Horrela, zerbitzuen sektorea MMEn sartu zen Zerbitzuen Merkataritza Buruzko Akordio Orokorren bidez (GATS ingelesezko akronimoan). Dagokion liberalizazioa laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian hasi zen, Mendebaldeko potentzia nagusiek beren enpresak irabazten aterako zirela zekiten alorretan, besteak beste finantza-zerbitzuetan eta telekomunikazioetan.

GATSek, alegia, nazioarteko zerbitzuak arautzen dituen eremuak, zerbitzuak nazioartean hornitzeko lau modu nagusi hartzen ditu kontuan: 1) herrialde batean beste herrialde batetik emandakoak, hau da, mugaz gaindiko hornidura, normalean informazioa mugitzea eskatzen duena, hala nola aholkularitza juridikoaren kasuan; 2) kontsumitzaile bati bere herrialdetik kanpo emandakoak, hau da, kontsumitzailea lekuz aldatzea eskatzen duena, turismoaren kasuan, esaterako; 3) atzerrian presentzia komertziala ezartzen duena, finantza-zerbitzuak eskaintzeko banketxe baten sukurtsalaren kasuan, adibidez; eta 4) beste herrialde batean presentzia pertsonala eskatzen duena, pertsona fisikoaren nazioarteko mugimendua dakarrena, zerbitzu domestikoaren edota eraikuntza-lanen kasuan, esaterako.

GATSen eremutik kanpo geratzen da, aldiz, eskulanaren migrazio iraunkorra, interes handikoa bada ere garapen bideko herrialde askorentzat. Izan ere, pertsona fisikoaren nazioarteko mugimenduz arduratzen den akordioaren eranskinean (zerbitzuak emateko 4. modua) zera zehazten da, herritartasunari, bizilekuari edo enpleguari modu iraunkorrean eragiten dieten neurriak baztertea. Izan ere, herrialde gehienek mugimendu-askatasuna enpresetako zuzendari eta goi-kargudunei soilik eskaintzen diete (Zabalo, 2000).

Jabetza intelektualari dagokionez, horri buruzko erregulazioa (TRIPS) GATTetik sartu zen MME sortzerakoan, eta bost urteko epea ezarri zen Hegoaldeko herrialdeek beren legeria nazionala patenteei buruzko gutxieneko arau batzuetara egokitu zezaten. Horrek esan nahi du legeria nazionalak berdintzen ari direla baina goitik, eta horrela 20 urtez berrikuntzak babestu behar dituztela, bai prozesukoak zein produktukoak, eta baita egile-eskubidei eta erregistratutako markei dagokienez ere.

MMEren estaldura jabetza intelektualaren babesera zabaltzeko orduan, enpresen munduko lobbyen lana erabakigarria izan zen. Hain zuzen ere, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko Akordioa AEBetako Jabetza Intelektualaren Batzordeak (IPC ingelesezko akronimoan) bultzatu zuen, eta Uruguako errondaren agendan gai hori sartzeko helburu esplizituarekin eratua izan zen. Erakunde horrek koalizio bat osatu zuen Europako eta Japoniako enpresa-erakunde nagusiekin (UNICE eta Keidanren, hurrenez hurren), eta 1988an dokumentu bat aurkeztu zuen (*Basic Framework for GATT Provision on Intellectual Property* izena zuena), Europako, Estatu Batuetako eta Japoniako gobernuen laguntzarekin, TRIPSen zirriborro bihurtu zena, eta, bertan, haren funtsezko ideia eta proposamen nagusiak agertzen dira.

Antzeko zerbait gertatu zen MMEren beste berrikuntza nagusiarekin, GATS delakoarekin, hain zuzen ere. Horrela, Estatu Batuetatik ailegatu ziren presioak, lehenik eta behin, finantza-sektorearen eskutik, eta horri batu zitzaizkion Zerbitzu Industrien Koalizioa, 1982an sortua, eta Merkataritza Ganbera (USCC ingelesezko akronimoan), munduko lobbyrik handiena dena, nazioarteko zerbitzuen merkataritza Uruguako negoziazio-itzulian sartzeko helburuarekin. Atlantikoaren beste aldean, Europako Batzordeak berak eskatuta, 1986an Europako Erkidegoko Zerbitzu Taldea sortu zen. Eta 1999an, garai hartako Europako Merkataritza komisarioa zenak, hau da Leon Brittan-ek, Europako Zerbitzuen Foroaren sorrera bultzatu zuen, ondorengo negoziazioetan lobby lan horrekin jarraitu ahal izateko (Zabalo eta Bidaurretzaga, 2016).

3.3. Nazioarteko merkataritzaren benetako erregulazioa: liberalizazio asimetrikoa eta jabetza intelektualaren babesa

Aurrez aipatu den bezala, GATT/MME esparruan egindako nazioarteko merkataritzaren arauketa nabarmen asimetrikoa da, eta bereziki mesedegarria hainbat hamarkadatan Iparraldeko herrialdeetako gobernuen eta haien nazioz gaindiko enpresen interesentzat. Nekazaritza-sektoreak eta eskulan intentsiboaren sektoreak (ehungintzan eta jantzigintzan, adibidez) hamarkadetan zehar jaso duten ezohiko tratamendua,

bai muga-zergen oztopoei dagokienez, bai muga-zergak ez direnen kasuan ere, arauen asimetria horren erakusgarri nabarmena da. Eta hori guztia gertatzen da Hegoaldeko herrialde askok merkatu libreko baldintzetan sektore horietan lehiatzeko gaitasuna izan duten testuinguruan.

Iparraldeko herrialdeetako nekazaritza-sektorean, muga-zergak ez diren neurrien erabilera zabala da, eta bereziki nabarmentzen dira nekazaritzarako laguntzak, kontingenteak, eta neurri teknikoak (kalitatearen inguruko arauak eta ingurumena babesteko neurriak, adibidez, "merkataritzarako oztopo teknikoak" izenez ezagutzen direnak), sanitarioak edo fitosanitarioak. UNCTADek gai horri buruz 2013an egindako ikerketa baten arabera, animalia bizien % 71k, landare-produktuen % 69k eta prozesatuako elikagaien % 57k gutxienez osasun-arau edo arau fitosanitarioren bat bete behar dute. Aldi berean, prozesatutako elikagaien % 42k, bizirik dauden animalien % 36k eta landare-produktuen % 32k merkataritzarako oztopo teknikoak dituzte (UNCTAD, 2020). Neurri horiek guztiek, elikagaien segurtasuna sustatzeko hasierako helburuari aurre egiteaz gain, lehia desleialerako tresna ere bihurtu dira garapen bidean dauden herrialdeetako lehiakideekiko, dumping-praktikak gauzatzuz (jasotako dirulaguntzei esker, ekoizpen-kostuaren azpitik esportatzen dituzte beren ondasunak).

Nekazaritzari buruzko Akordioa izeneko MMEn sartu zen GATTaren Uruguako errondaren azken akordioaren ondoren, eta bi helburu nagusi zituen: nekazaritza-produktuen nazioarteko merkataritza arautzen zuten arauak aldatzea, eta merkatu hori liberalizatzea zenbait eremutan: tarifikazioa (muga-zerga ez diren neurriak muga-zerga bihurtzea), muga-zergen babesa murriztea, esportaziorako subsidioak kentzea eta merkatuetarako sarbidea hobetzea.

Hala ere, esparru horiek eduki eta bilakaera desberdinak izan dituzte azken hogei urteotan, akordio horrek salbuespen ugari jasotzen baititu, "kolorezko kutxa edo konpartimentuen" sistema konplexu batean oinarrituta (anbar kolorekoa, urdina eta berdea). Sistema horrek nekazaritzari laguntzeko neurriak sailkatzen ditu, eta aukera ematen du EBko Nekazaritza Politika Bateratuarekin (gaztelaraz PAC akronimoaren bitartez ezagutzen dena) eta AEBetako *Farm Bill* izenekoarekin jokatzeko; izan ere, haren konplexutasunak aukera ematen du haien nekazaritza-sektoreak babestuta mantentzeko. Horrela, murriztu egiten dira "anbar koloreko" laguntzak (prezioen edo ekoizpenaren mantentzeari lotutakoak), beste batzuk estaliz, hala nola ingurumenaren babesa eta landa-garapena (berde kolorekoak) edo zenbait produkturen laborantza kentzea (urdin kolorekoak), eta, horrenbestez, ekoizpenari lotutako laguntzetatik nekazariei emandako zuzeneko ordainketetara pasatzen da.

Horrela, nekazaritza-sektorean EBko dirulaguntzak, AEB eta Japoniakoekin batera, murriztu beharrean, mantendu egiten dira edo handitzen jarraitzen dute, eta horrek eragin negatiboa du garapen bideko herrialdeetako lehiakideengan eta bertako biztanleen elikadura-segurtasunean (Areskurrinaga, 2018).

Bestalde, ehungintzaren eta jantzien sektorean, muga-zergak ez diren neurrien protagonista nagusiak ondoko hauek izan dira: hasiera batean Multifibra Akordioa (1974-94), geroago Ehungintzari eta Jantzigintzari buruzko Akordioa (ATV gaztelaniarazko akronimoan) (1995-2004), eta, azkenik, Txinaren babes-klausulen erabilpena 2008ra arte. Horrek guztiak GATTaren espiritua urratu du, eta aipatutako akordio horiek munduko ehun eta jantzien merkatua desitxuratzea lortu dute hiru hamarkada baino gehiagoz.

Era berean, Hegoaldeko ekonomien esportazioek "muga-zergen mailaketa" deiturikoa ere pairatzen dute maiz; hau da, Iparraldeko herrialdeek gero eta muga-zergen maila altuagoa erabiltzen dute inportatutako produktuaren elaborazioa handitu ahala. Horrek lagunduko luke azaltzen zergatik kakaoaren munduko ekoizpen gehiena garapen bideko ekonomietan kontzentratzen den eta, aldiz, txokolatearen ekoizpena herrialde garatuetan metatzen den.

Ildo beretik, jabetza intelektualeko eskubideen kasuan, GATT/MMEren printzipioekin koherentea den liberalizazio-prozesu bat gerratu beharrean, TRIPS izeneko akordioak gutxieneko babes-maila handia ezartzen du patenteen, marka erregistratuen eta egile-eskubideen gainean, zeinak MMEko kide diren herrialde guztiek bete behar dituzten. Horrek dakarrena zera da, asmakuntza berrien babes-maila patenteen bidez egiten dela, baina goranzko harmonizazio bat bultzatuz, hau da, existitzen ez den edo ahula den lekuetan, herrialde garatuetan ematen den mailaraino igo behar dela babes-maila.

Araudi hori merkataritzaren liberalizazioa bultzatzen duen erakunde baten eremu instituzionalean integratzea inkoherentzia handikoa da benetan, patente batek aldi baterako monopolioa sortzen baitu eragindako produktuen kasuan. Hala ere, horren aurrean, sarritan argudiatzen da ikerketak onura ekonomikorik ekarriko ez balu, produktua bera ez litzatekeela ekoiztuko; horrela, patentei lotutako aldi baterako monopolio pribatuak ezagutzaren alorrean beharrezko aurrerapena bermatu ahal izateko ezinbesteko tresnatzat hartzen dituzte bere defendatzaileek.

Baina, horri dagokionez, ez da ahaztu behar baldintza horietan jakintzaren pribatizazioa gertatzen dela, eta enpresa multinazional gutxi batzuen eskuetan kontzentratzen dela; era horretan, ikerketa zientifiko eta teknologikoak, beharizanaren erreferentzia hartu beharrenean, errentagarritasunarena hartzen du bidelagun (Zabalo, 2000). Gainera, erregistratutako patente gehienak herrialde garatuetako enpresetakoak dira, edo, gero eta gehiago, eremu horretan oso lehiakorrek diren garapen bideko herrialdeetakoak, hala nola Txinakoak –duela gutxi nazioarteko patente-eskaeretan AEBak gainditu dituzte–, edo neurri txikiagoan, Hego Koreakoak.

Gai hau sentikortasun handikoa da ekoizpenaren esparru jakin batzuetan, hala nola premia handiko sendagaien alorrean. GIB/HIESaren pandemiaren eta horren aurkako tratamenduei buruzko patenteen kasuan argi eta garbi ikusi da sistema horren ondorioak oso zoritxarrekoak izan daitezkeela garapen bideko hainbat herrialderentzat, eta bereziki Saharaz azpikoentzat. Azkenaldiko COVID-19aren pandemiaren kasuan txertoak baliabide gutxiko herrialdeen artean zabaltzeko ikusten ari garen atzerapena ere oso esanguratsua da alde horretatik.

Laburbilduz, MMEren arau inkoherenteek aurrerapen handia ekarri dute ondasun eta zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren liberalizazioan, salbuespen nabarmenak badaude ere nekazaritzaren arloan (aurretik ehunen eta jantzien sektorean gertatzen ziren bezala), bai eta nazioarteko migrazioen kasuan ere; eta hori guztia gertatzen da arau horiek jabetza intelektuala gero eta gehiago babesten duten bitartean. Horrek guztiak errazten du enpresa transnazionalak lehen debekatuta zituzten esparruetan sartzea, baita salerosketetarako euren eremua zabaltzea ere, irabazi gehigarriak eskuratzeko modua bideratuz, eta lehen publikoa zena pribatizatuz.

Eta, gainera, jokoaren arau horiek ika-mikak konpontzeko sistema eraginkor batek babesten ditu; izan ere, aukera ematen du estatu bat zigortzeko, arau horiek betetzen ez baditu eta beste batek salatzen badu. Izan ere, gaitasun hori ez du mundu mailako beste inongo erakunde ekonomikorik. Hala eta guztiz ere, agenda horren onuradun nagusien ustez, aurrerapenak ez dira nahikoak, eta, horregatik, azken hamarkadetan erakunde horren lana osatzen saiatu dira, erakunde horren arautegitik harago joanez, integrazio-ekimen erregionalei dagozkien araudien eta gai espezifikoek buruzko alde biko hainbat hitzarmenen eskutik.

Testuinguru horretan, Iparraldeko herrialdeetako gobernuek MMEk jada jorratutako gaiei buruzko hainbat akordio bultzatu dituzte, arauketa indartua sustatuz, MMEn behar beste aurreratu ez dela uste izan dutenean. Horiek horrela, MMEaz haratago joan nahi dutenean zenbait gai arautzerakoan, MME-plus araudiak deitutakoak egin dituzte, eta erakunde horrek oraindik arautu gabeko beste gai batzuen kasuan, MME-extra deiturikoak. Horren bidez, Iparraldeko gobernuek hainbat arloren gaineko beren araudiak “esportatu” nahi dituzte beste herrialde guztietara, eta beren interes nagusia lehiaren inguruko politikan, jabetza intelektualaren eskubideetan eta atzerriko inbertsioarako araudian kokatzen da nagusiki (MME, 2011; Zabalo eta Bidaurrezaga, 2016).

4. Ondorioak

Hasiera-hasieratik gaur egun arte, nazioarteko merkataritzari buruzko teoriak gero eta konplexutasun handiagoa hartu dute denboran zehar, eta berrienak aurrekoek hainbat arlotan izandako mugak osatzen joan dira. Horrela, korrante hegemonikoak bat datoz ekoizpenaren espezializazioan eta merkataritza askea sustatzearen aldeko analisisian eta proposamenean. Hala eta guztiz ere, merkataritza askeari buruzko teoria kritikoak ez dira hutsaren hurrengoak izan, eta, historian zehar, tankera askotako gobernuen merkataritza-politikak lehia askea mugatzeko praktika protekzionistez beteta daude.

Nazioarteko merkataritzaren egungo eskemak zenbait ezaugarri ditu, eta, horien arabera, litekeena da hurrengo hamarkadetan funtsezko aldaketak gertatzea haren oinarrietan. Horrela, XX. mendeko 80ko hamarkadatik aurrera bultzatutako merkataritzaren liberalizazio handiagorako joerak bere mugak erakutsi ditu, eta horrek tentsio protekzionistak ere piztu ditu munduko ekonomia nagusietan. Era berean, enpresa transnazionalak lortutako protagonismoak eta nazioarteko merkataritza kontrolatzeko duten gaitasunak jokoaren arauak desitxuratu dituzte, eta, horren ondorioz, errentak eskuratzeko haien estrategiek herrialdeen arteko eta herrialdeen barruko desberdintasun sakonak eragin dituzte. Era berean, balio-kate globalek ekoizpen-prozesuak zatikatzea eta deslokalizatzea ekarri dute, estrategia horretan sakontzearen ondoriozko irabaziak gero eta mugatuagoak bihurtu arte. Ildo horretan, ziurgabetasunak eta egungo nazioarteko merkataritzaren oinarri diren jarraibideak nabarmen alda ditzaketen joerek markatutako panorama bati aurre egin behar diogu gaur egun.

GATT/MME arauen esparruak, besteak beste, diskriminaziorik ezaren, berdintasunezko tratua eta elkarrekikotasunaren aldeko printzipio batzuk ezarri ditu teoria mailan nazioarteko merkataritza liberalizatzeko bidean. Hala ere, errealitatea, berariazko araudiez gain, salbuespenez eta ez-betetzez josita dago, hala nola jabetza intelektualaren eskubideei buruzkoa, logika liberalizatzailearekiko begibistako inkoherentzia erakusten duena. Horrek guztiak indartu baino ez ditu egiten herrialde batzuen eta besteen artean gertatzen diren asimetria estrukturalerako batzuk. Horiek ekoizpen- eta merkataritza-espezializazioaren arloko desoreka handiak dakartzate gerora, lan honetan datu estatistikoetan oinarrituta ikusi ahal izan dugun moduan.

Kapituluaren egiteko erabilitako bibliografia

- Areskurrinaga, Efrén (2016): La liberalización del comercio agrícola y textil en la OMC: Efectos en los países del Sur. *Revista de Economía Crítica*, nº22, segundo semestre. http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n22/EfrenAreskurrinaga_liberalizacion-comercio-agricola-textil.pdf
- Bajo, Oscar (1991): *Teorías del comercio internacional*. Antoni Bosch (ed.). Barcelona.
- BM (2020): *Informe sobre desarrollo mundial 2020: El comercio al servicio del desarrollo en la era de las cadenas de valor mundiales*. Banco Mundial.
- Chang, Ha-Joon (2013): Patada a la escalera: la verdadera historia del libre comercio. *Ensayos de Economía*, No. 42. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6266927>
- Galaso, Pablo (2013): El comercio Mundial, en Durán Romero, G., García de la Cruz, J. M, Sánchez Díaz, A. (coords.): *Estructura económica y relaciones internacionales*. Ed. Garceta.
- Maddison, Angus (2001): *The World Economy: A Millennial Perspective*. OCDE. París.
- Maesso, María y Gonzalez, Raquel (2011): *Manual de economía Mundial*. Ed. Pirámide. Madrid.
- Murphy, Sophia; Burch, David y Clapp, Jennifer (2012): El lado oscuro del comercio mundial de cereales. El impacto de las cuatro grandes comercializadoras sobre la agricultura mundial. *Informes de investigación de Oxfam*.
- OMC (2011): *La OMC y los acuerdos comerciales preferenciales. Informe sobre el Comercio Mundial-2011*. Organización Mundial del Comercio.
- OMC (2014): *Informe sobre el Comercio Mundial 2014*. Organización Mundial del Comercio.
- OMC (2016): *Informe del Comercio Mundial 2016*. Organización Mundial del Comercio.
- WTO (2020): *Women and Trade: The role of trade in promoting gender equality*. World Trade Organization.
- UN (2020): *World Economic Situation and Prospects 2020*. United Nations.
- OXFAM (2002): *Cambiar las reglas. Comercio, globalización y lucha contra la pobreza*. http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2012/08/cambiarreglascomercio_oxfam.pdf

- TALAVERA, Pedro (2000): "La regulación del comercio internacional: del GATT a la OMC", capítulo 27 de J. MARTÍNEZ PEINADO y J.M^a VIDAL VILLA (coords.), Economía Mundial. McGraw -Hill, Madrid.
- UNCTAD (2015): Informe sobre comercio y desarrollo 2015. Hacia una arquitectura financiera internacional al servicio del desarrollo. Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo.
- UNCTAD (2016): El comercio como instrumento para el empoderamiento económico de la mujer. Nota de la secretaría de UNCTAD. TD/B/C.I./EM.8/2
- UNCTAD (2016b): [Manual didáctico del instituto virtual sobre comercio y género](#) Volumen 1: revelando los vínculos. Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo.
- UNCTAD (2017): Informe sobre comercio y desarrollo 2017. Un *new deal* mundial como alternativa a la austeridad. Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo.
- UNCTAD (2018): Informe sobre comercio y desarrollo 2018. El poder, las plataformas y la quimera del libre comercio. Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo.
- UNCTAD (2019): Informe sobre comercio y desarrollo 2019. Financiar un *new deal* verde global. Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo.
- UNCTAD (2019b): [World Investment Report-2019. Special Economic Zones](#). Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo
- UNCTAD (2020): [Negotiating liberalization of trade in agriculture for development](#). Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo
- UNCTAD (2020b): [World Investment Report-2020. International Production Beyond the Pandemic](#). Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo
- ZABALO, Patxi. (2000): La Organización Mundial del Comercio, paradigma de la globalización neoliberal. Cuaderno de Trabajo de Hegoa, nº 28. http://publ.hegoa.efaber.net/uploads/pdfs/191/Cuaderno_de_trabajo_28.pdf?1488539714
- ZABALO, Patxi y Bidaurratzaga, Eduardo (2016): Acuerdos internacionales sobre comercio e inversión: apuntalando la globalización neoliberal. XV Jornadas de Economía Crítica, Universidad Complutense de Madrid, 10-12 de marzo. <https://docplayer.es/83588593-Viernes-11-de-marzo-manana-mesa-2-internacionalizacion-y-empresas-transnacionales.html>

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen eredu biberatzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
- 22.** Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
- 23.** Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
- 24.** Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Elena Martínez Tola. Hegoa-UPV/EHU.

